

Azkoittiko

# HIKE POLTSIKUN

HIKE  
INGO AL  
DIAU?

INGO  
EZTIÑAU  
BA!



## Azkoittiko

# HIKE POLTSIKUN

Azkoittiko Udalak 2020xen Euskara Mahaixen babesakin eta hainbat herritarrekin batea, hike bultzeitteko egitasmue jarri zun martxan. Lantaldik logotipo-lehiaketie ein ondoren, *Hike eizan!* izena hartu zun eta ikastaruk ezetzik, izen bereko bertso-saixue eta bertso-paper-lehiaketie're ein dittu.

Liburuxka hau beste pauso bat da proiektu hortan. Helburue da herriko hitanue jasotzie eta hike-tratamentue eta, batiz bat, noka ibiltzeko ohitturie Azkoittixen zabaltzie.

Liburuxka hau eitteko, «*Oñatiko hika poltsikaran*» eskuliburue ibilli da eredutzat. Bertako testu-edukixe Xabier Eizagirrek moldau du eta Azkoittiko gaur egungo hikeko aditz-taulak osatzeko, berriz, zenbait herritarrek emandako informaxiue eta *Hike eizan!* lantaldeko partaidin ekarpenak eta babesu ezinbesteko laguntzie izen die. Horreatik, hike herrixen indertzeko ekimen hontan parte hartu deben danai bihotzez eskertu nahi dixeu, batiz bat, Xabier Eizagirrei.

**Azkoittiko Udala**

## SARRERIE

### <<Hike eizan!>> egitasmue

Egitasmo hau Azkoittixen sortu zan 2019-2020 urte bittartin herritar batzuk eta udaleko Euskara Ataleko partaidik alkar hartute, herriko *hike* (eo hika) tratamientue bultzeitteko asmoz. Ikusten gendune zan azken urtitan herrixen hike hitz eitteko ohitturik behera ein zula, neskan artin ixte galtzeaiño!, eta neska-mutillen artin'e gutxixo eitten zala (mutillek neskai, ixte batez, geizki eo zuke), eta, gaiñea, mutillen hike-jardune trakestu ein zala. Hortaz aparte, gurasun hike-transmisixue're galtzen ikusten gendun. Horren aurrin, ekimen batzuk bultzeitzen hasi giñen herrixen hike-tratamientue suspertze alde.

Eskuliburu hontako euskerie dala ta, hauxe da hartu deun erabakixe: euskera azkoittiarin eta hike idaztie. Hortaz, zukeko sarrera hontatik aurrea, hike eingo deu: noka (neskai) eta toka (mutillei), azpiatalka txandaez. Hartara, irakurliei zuzenin hike hitz einde, errezo eingo zako hike-tratamientun murkiltzie, eta, gaiñea, neska zein mutil, bixek izengo debe hike osue (toka+noka) ezautzeko aukerie. Azken batin, hiri, azkoittiar hiztun osue izen nahi denan/deken horri zion/ziok zuzendute lantxo hau.

## «Azkoittiko HIKE POLTSIKUN» eskuliburue

Eskuliburu honen helburue Azkoittiko hike ikisten eo hobetzen laguntzeko bittartekue izetie den. Bertan, hike-jardunen gaiñeko azalpen orokor batzuk emango ditxiñau eta baitte hike ondo hitz eitteko oiñarrizko esplikazixuk'e. Gero, aditz-aula batzuk sartu ditxiñau, hike eitteko ber-berrezkuk ditteun aditz-forma eo adizkixekin. Hike eskurau nahi dunantzat lagungarrixie izengo dalakun, hastie den kontue. Aurrea, ba!



## Azkoittixen, HIKE eta ZUKE

Azkoittixen, HIKE esan izen zikok lagunarteko hizketa-tratamentuei; beste leku batzuten *hika*, *hitanoa*, *hiketa* eta abar'e bai. Hike (HI+KE), HI izenordaiñe eta -KE atzizkixe: hi-eran hizketan jardutie esan nahi dik. -KE atzizki hori oso geurie diau Azkoittixen beste adberbixo batzuk osatzeko're, aurretik dijun hitze «-i, -u, -n» batekin bukatzen danin; esate bateako: *antxintxiKE*, *txintxiliKE*, *harriKE*, *txilipurdiKE*, *xirriKE*, *oixuKE*, *miauKE*, *muxuKE*, *zuKE*, *txistuKE*, *zotinKE*... Tratamentu formalai eo errespetuzkuei, berriz, ZUKE esan izen zikok Azkoittixen. Azkenaldixen, berriz, *hika* eta *zuka* aitzen eta ibiltzen hasi gaittuk, euskera batuk erainde eo. Eta esapide xeblete eta desegokixek'e aitzen dittuk kalin eta eskolatan, adibidez: «hikaZ egin»; -Z hori erabat sobrakue dek -KA atzizkixekin dana esanda zioik eta; esango ote giñikik «antxintxikeZ eiñ»? Ba, igue-la dek pa.



## Mutillek hike, eta neskak...?

Lehen, mutillek ezetzik, neskak'e hike askoz gehixo hitz eitten ziñabenan lagunartan eta familixetan Azkoittixen. Zenbaittentzat, ordie, neskak hike eittie geizki ikusitte egon den; emakumintzat "bastogixe" omen hunan, ez oso fiñe, eta, horreatik zuke egokixae. Mutillek, halare, beti izen diñabe askatasun gehixo, hontan'e.

Gure alboko, eo gaiñeko!, hizkuntzetan (espainiera, frantsesa...) gauzeik normale-na eta egokixena den hurreko tratamentue ibiltzie hurrekun artin eta konfiantzagirun; gaiñea, hizkuntze hoixetan lagunarteko tratamentu hoixek ai dittun nagusitzen tratamentu formalan gaiñetik (*tú usted-en* gaiñetik).

Euskal Herrixen, berriz, hike eo hitanoa mutillen arteko hizketa ai den bihurtzen. Guraso askok ein izen diñ bereizkeixe familixetan: semiei hike, hurrekue; alabai zuke, formala. Gero, etxin hike ikisi ez dun mutil askok kalin ikisi diñ, kuadrillen, tabernatan, alkarte gastronomikutan, kirol-alkartitan...; neskak, berriz, gaur arte, ez diñabe izen mutillek izen deben sozializaxio-aukerarik, ez -lekuik; ondorixue: erakutsi ez, hitz eitteko aukerarik ez..., neskak hike baztartzea jo diñabe. Horrek, dudeipe, neskai hizkuntze-adierazpidie murriztie ekarri zion.



## Garai berriek ote hike-tratamentuntzat?

Zorionez, azken urtitan hitanoan gaiñeko ikuspegixe pixket aldatzen ai dala ematen dik Euskal Herrixen; konturatzen ai gaittuk, itxura danez, galera haundixe dala euskerintzat lagunarteko hizketie galtzie; hasi gaittuk balixo haundixo ematen hieko hizkeriei: ikastaruk herrixetan eta eskolatan, hie bertso-saixuk, bertso-papper lehiaketak, hielagunek, hikedromuk eta abar. Ai dek, hortaz, berpizte moruko bat izeten mutillen artin, batiz bat; neskan artin, halare, asko moteldu dek hie.

## HIKE: LAGUNARTEKO TRATAMENTUE

### Hiru hizketa-tratamentu Azkoittixen

1. **ZUKE.** Tratamentu formala den, eta, genero aldetik, neutrua: *Zuk esan dezu.*
2. **HIKE.** Lagunarteko tratamentue eo tratamentu informala den, HI pertsona hurreko horrekin eitteku: *Hik esan den/dek.*
3. **BERORIKE.** Garai bateko errespeto oso haundiko tratamentue; gaur egunin galdutzet emateku den, halare: *Beorrek esan du.*



### Zer ematen dik hike-tratamentuk?

Hike hitz eittik gauze asko ematen ditxik batea: hizketa-lagunekin hurbiltasune, konfiantzie, konplizidadie, hizketa-bizittasune eta -aberastasune...; azken batin, hurrekuen arteko hizkera-moru atsegiñe dek hike.



# HIKE IBILTZEKO OHITUREK


## Zeiñekin bai eta zeïñekin ez?

Berez, hike hitz eittie ez den beti berdiñe izen Euskal Herrixen aldi eta alde danean. Halare, bazeuden ohitture nahiko jakiñek danin zabaldute. Gaiñea, gaur egunin, gero eta salbuespen eta erabillera gehixo eitten dittun, batzuten hiztunek halaxe erabakitte eta beste batzuten ezjakintasunez. Hauetxek dittun hike hitz eitteko ohitture zabaldunak:

### Hike BAI, normalin

- Gurasuk seme-alabai eo zaharrauek gaztiauei.
- Anai-arrebak alkarri.
- Lagunartin, adin-tarte berdintse danin, behintzet.
- Adinkidin artin, oiñarrizko konfiantzie izen ezkeo.
- Animalixei, jeneralin, eta toka gehixenetan; noka're bai, kasu jakin batzuten (etxeko katu eo txakur emiei...). Erlikin, berriz, *zuek* kolektibue ibiltzen omen den.
- Norbere buruei.

TXAKURRE ZE EITTEN DEK  
BIRIEN ERDIXEN?  
ASPERTU EGIN AL HAIZ  
ETXIEN GUARDIXEN?



## Hike EZ, normalin

- Gurasuei eta askozaz zaharrauek dienai. Halare, gaur egunin, badittun gurasuei hike eitten dixobenak, halaxe onartu debelako hizketakidik.
- Ume jaixo berrixei, kokkortzen hasi arte.

## Hike BAI eo EZ?

- Andra-gizonak alkarri zuke eittie den ohikuna Euskal Herrixen, ez hike. Harri-garrixe ematen diñ, halare, hike hurrekun arteko hizketa-tratamentue izenda, hurrekunai ez eittie. Askotan ezautu izen diñau Euskal Herrixen, ezkondu aurretik lagunartin hike eitten zeben neska-mutillek alkarrekin ezkondu eo elizeko altaretik pasau orduko, zuke hastie! Zer dala-ta ote den hori?



## HIKE-TRAMENTUN EZAUGARRIXEK

### HI izenordaiñe

Hike ai geanin, bigarren pertsona singularra eta hizketa-lagune HI dek, ez ZU; ez dittuk bata eta bestie nahastu ber. HI izenordaiñe bere hike-aditzekin ibiltzen dek:

**Hi** etorri **haiz** (HIKE)

**Zu** etorri **zea** (ZUKE)

### ZUEK pertsonie, aditz neutrukin beti

Halare, hike jardun arren, ZUEK bigarren pertsona pluralakin aditz neutruie ibilli ohi dek beti: *zeate, dezute, zatozte...*

*Gaur goiz jaiki **zeate zuek!** ("zeate", aditz NEUTRUE)*

### Genero-markie: NOKA eta TOKA

*no* (aizan) eta *to* (aizak) hikeko bokatibuk dittuk Euskal Herririko ekialdin; hortik zatozte *noka* eta *toka* hitzek'e. Hike ai geanin, mutillei eo neskai jardun, aditz-formie ez dek bea, gehixenetan; genero-bereizketa hori aditzin azaltzen dek:

«Esan al dixoN?», neskai ai bagea (NOKA esaten zikon)

«Esan al dixoK?», mutillei ai bagea (TOKA esaten zikon)

## Noiz noka, noiz toka?

ZEIÑI ai gean hizketan izen ber den kontun, zein dan aurrin deun hizketa-lagune: hizketa-lagune zein dan, halaxe ein ber diñ, noka (neskai) eo toka (mutillei). Aditz-formak eo adizkixek, berriz, ezaugarri hauek ditxiñabe:

### a) Adizki ezberdiñek, gehixenetan

**NOKA** (neskai)

-**N** atzizkixe

(*nauN, dittuN, zaudeN...*)

-**ÑA**-, -**ÑE**-; -**NA**-, -**NE**- artizkixek

(*diÑAt* eo *diÑEt*, *zaudeNAn...*)

**TOKA** (mutillei)

-**K** atzizkixe

(*nauK, dittuK, zaudeK...*)

-**A**- artizkixe

(*diAt, zoAt, zaudeAn...*)

### b) Adizki beak NOKA eta TOKA, batzuten

HI pertsonikin:

*haiz, habil, haut, hao, hator...*



## Generun kontue, biren arteko tratue

Batetik, hike eittik genero-bereizketie eittie eskatzen dik, nokako eo tokako aukerie eittie, eta, hori bi hizketa-lagunen artin adostu berrekue dek; bestetik, bidezkie dek gizon eo emakume sentitzen ez dienak'e errespetatzie, bestela hitz ein nahi baldin badebe're. Dana dala, hike hitz eitten ikisten ez badeu, ez diau hala eitteko aukeraik izengo sekule.

## ZUZENKO adizkixek eta ZIHERKAKO adizkixek

Hike ai geanin, bi eratako adizkixek ibiltzen ditxiñau, gehixenetan: zuzenekuk eta ziherkakuk.

- **Zuzenekuk** (ez-alokutibuk). Adizki hauek, **HI** bigarren pertsona singularrak, hizketa-lagunek, zuzenin aditz-ekintzen **parte hartzen** dunin ibiltzen dittun; hortaz, **HI protagonista** dala esan leikeñau, eta *hi, hik, hiri* kasuten izen leiken esku-hartze hori. Esate bateako:

*Hi lasai habil.* (HI ibilli)

*Hiri gustau zan.* (HIRI gustau)

*Hik esan dixok.* (HIK esan)

Hiru esaldi hoixetan, aditzetan ditteun "h-", "-n" eta "-k" ezaugarriek HI pertsona solaskidin berezko markak dittun aditzetan txertaute.

- **Ziherkakuk** (alokutibuk). Adizki hauek, hi bigarren pertsona singularrak, hizketa-lagunek, zuzenin ekintzen **parte hartzen EZ** dunin ibiltzen dittun. Alegixe, HI **ez** den ekintzen **protagonista**; ekintzen partaidik **NI, GU, HAURE** eta **HAIXEK** dittun, baiñe Hlrekin hike ai naizelako hizketan, ziherka sartzen den hizketa-lagunen hi-bereizgarrixer aditzin; esate bateako:

*Iratik azterketie ondo eiñ diñ.*

[harek ein (DU) + hi neska hizketakidie (-Ñ) > DIÑ]

*Sarrerak belaxe saldu dittuk.*

[haixek saldu (DIE) + hi mutil hizketakidie (-K) > DITTUK]

Laburbilduz:

Hi **ZUZENEKO** aditzek  
**HI** pertsonik ekintzen parte  
 +  
 Hizketakidie den  
*hator, dauken, dixok...*

Hi **ZIHERKAKO** aditzek  
**NI, GU, HAURE, HAIXEK**  
 pertsonak ekintzen parte  
 +  
 HI hizketakidik aittu bakarrik  
*naun, gaittuk, zion...*

## Mendeko esaldixetan ZIHERKAKOIK EZ

Esaldi konposuetan, mendeko esaldixe esaten zikok beste esaldi nagusi baten barrun txertaute dijun zatixei. Konparazixo batea:

*Irakaslie azaldu **daNIN**, danak ixildu **dittun**.*

Esaldi hortan, «danak ixildu dittun» dek esaldi nagusixe, eta, «irakaslie azaldu danin» mendekue, bere -NIN, denborazko ezaugarrixekin. Beittu:

Esaldi NAGUSIKO aditze HI-markadune dek (dittuN). MENDEKO esaldiko aditze, berriz, aditz NEUTRUE (da + -NIN).

Eta hoixe dek hikeko aditz-forma zuzena:  
**mendeko esaldixetan ez dek ziherkako aditzik (alokutiboik) ibilli ber.**

Nehiko erreza dek, gaiñea, jakittie zein dan mendeko esaldixe, harek beti dik mendeko markan bat: [-(e)NIN, -(e)LAKO, -(e)LA, -N, BAIT...]

IKUSI AL DEN  
NOLA BEITU  
DIGUN?!

BAAA!  
NEHIKO  
ZIHERKA, EZ?

HORI'RE HI  
ZIHERKAKUE  
IZENGON.



Jarri zak arreta pixket euskal ahozko eta idatzizko literaturako adibide hauetan, danak zatoztek bat esan deun hortan; gehixenak azkoittiar idazlinak dittuk, gaiñea:

«Abil, eta so egin ezan gizonik deNEZ ageri».

(Bereterretxen *Khantoria*, 1434-1449)

«Nor naizalA uste dek?»

(Bizenta Mogel: *Azkoitia*, 1782 - Abando, 1854)

«Usoa saretan nastu daLA, uste diñat»

(Nemesio Etxaniz: *Azkoitia*, 1899 - Donostia, 1982)

«Zer esan ez dakidala geratzen nauk»

(Juan Luis Zabala, *Azkoitia*, 1963)

## Mendeko esaldixetan ZUZENEKUK BAI

Halare, mendeko esaldixen aditze hi zuzenekue (ez-alokutibue) baldin bada, HI pertsonie dagokixona baldin bada, beti izengo diñ HI horren markie. Holaxe:

*Jostailue kendu **dixokelako** hasarrau **zak** umie.*

(HIK kendu + HIRI hasarrau) Bi zatixetan HI pertsonie zion ekintzen sartute; ho-reatik, bi aditzetan HI horren markie.



## Aditz trakets berriek: *natxoala, diñaunin, ziokelako...*

*Kontzejupin jarritte natxoala jo nitxian pelotik.*

*Ikusten diñaunin, beai esango zonau.*

*Unai eztek azaldu gaur, hasarre ziokelako.*


Gero eta sarrixo aitzen ditxiau goiko adizki hoiek eta antzekuk Azkoittiko gaztin ahotan. Ba, azken urtitako joera traketsa dek hori, gure itturri oneko ahozko eta idatzizko tradizixun ez diau halakoik. Gurasutatik seme-alabeta transmisixuk kale ein dunin, gehixegizko hike-markak sartzea jo diabe belaunaldi berriek. *Hiperhitanoa* esaten zikok, eo, nahi badek, *gehixegike* (hike-marka gehixegi dun hike).

Goiko azpimarrauteko aditz hoiek mendeko esaldi-zatixen ziztek: *natxoaLA* (noiz-nola); *diñaunIN* (noiz); *ziokELAKO* (zeatik). Danak dittuk hi ziherkakuk, pertsonak, berriz, hauek: *natxoala* (NI); *diñaunin* (GUK); *ziokelako* (HAURE), eta, lehen esan deunez, mendeko esaldixetan ez diau hi ziherkakoik ibilli ber. Hor adizki neutruk dittuk zuzenak. Hauek:

*Kontzejupin jarritte NEUELA jo nitxian pelotik.*

*Ikusten DEUNIN, beai esango zonau.*

*Unai eztek azaldu gaur, hasarre DAOLAKO.*



### «zik», aditz komodiñe?

Asko aitzen den *zik* aditze Azkoittiko mutilen arteko hike-jardunin, testuinguru baten baiño gehixotan, gaiñea. Ondo ote zion? Konparazixo batea, hauek:

- a) *Nei neska hori gustatze zik.*
- b) *Harek nei ederki ikusi zik.*
- c) *Lana agindu zik irakaslik.*

Goiko "a" eta "b" esaldixetan *zik* ez den zuzena. Hike mutil bati ai geanin, beste hauek dittun zuzenak:

- a) *Nei neska hori gustatze ZITEK.*
- b) *Harek ni ederki ikusi NATXIK.*

Hortaz, "c" esaldikue den *zik* zuzen bakarra.

## BALDINTZE-esaldixek

Baldintze-esaldixek bi zati izen ohi ditxik: baldintze-zatixe eta ondorixo-zatixe. Esate bateako:

Behe-lañue kentzen **badu**, egualdi ederra eingo **diñ**.

(BALDINTZIE)

(ONDORIXUE)

### - Baldintzen, neutruer; ondorixun, hi ziherkakue

Jokabide ohikuna hauxe dek: baldintze-zatixen aditz neutruer (adibidin, **badu**), eta, ondorixo-zatixen hike-markadune (adibidin, **diñ**). Hemen literaturako adibide batzuk:

«Hire semea bizi bada, Mauliala dūn joanik»  
(*Bereterretxen khantoria*)

«Orixe bear diñat, itoko ezpanaiz» (Nemesio Etxaniz)

«Pezeta euki banu, ez nian iri eskatu bearrik»  
(Jose Manuel Lujanbio, *Txirrita*: Hernani, 1860 – Altza, 1936)

Halare, batzuten, hike-hiztun jator askuei aittu izen zoau baldintzen hi ziherkakue're:

«Nik arrapatzemañat orrek eman ber din abantarie» (*Azkoittiko euskerie*, 2000. urtie)

## - Baldintzen eta ondorixun, hi zuzenekue

Baiñe, baldintzen nahiz ondorixun, bixetan, aditzek hi zuzenekuk badie, bixek dia-be HI-ren marka berezkue bi zatixetan. Holaxe:

*Lore hoxek gustatzen **batzxiñ**, hartuitzan.*

(HIRI gustau + HIK hartu)



## HARRIDUREZKO esaldixek

Harridurezko esaldixetan bi erata jardun izen diñau euskaldunek, ematen denez.

a) Horrek **dauke** patxarie!

b) Horrek **zauken/zaukek** patxarie!

Euskaltzaindixek adizki alokutibuei eta hitano-tratamentuei buruzko 14. arauen ez ziñan nola jokau erabaki. Guk ikusten deune den gure aurreko azkoittiar eta ez-azkoittiar hitzun, bertsolai eta idazle on askok hi ziherkakue (alokutibue) ibilli debela sarri. Hemen adibide batzuk:

«Hau dek mangazixue dauketena gaur!» (*Azkoittiko euskerie*)

«Au den kantu polita, au!» (Martin Itziar, *Txikirri*: Azkoitia, 1905 - 1978)

«Jesus! Au dek trena! Au dek aldapa ta nola joaten dan!»

(Joxe Migel Iztueta, *Lazkao Txiki*: Lazkao, 1926-1993)

«Gure Jainkoak emango al zioz bat edo bati agiñeko miña!» (*Txirrita*)

Hortaz, ikusiz harridurezko esaldixek ze-nola tajutu din hike, guk hi ziherkako aditzek (alokutibuk) ibiltzea joko diñau.

OSTIAAA!  
BLAI  
EIN NATXIN!

BAZARRA JOKO  
AHAL DIN, TXORO  
HORREKI!

BAITTE N'RE!



## GALDERAZKO esaldixek

Esaldi-mota hauek'e bi eratan ein izen ditxiu:

a) *Jaixen mendire jungo al **gea**?*

b) *Jaixen mendire jungo al **gaitun/gaittuk**?*

Hontan'e, 14. arauen Euskaltzaindixek gai honen ingurun ez zian ezer erabaki; geruo, *Euskararen Gramatika*-n, 27.6b puntun «*Galderetan alokutiborik ez*» esaten dik eta idazle batzuen adibidik ematen ditxi; puntu hortan bertan beheratxuo, berriz, hauxe: «*Hala ere, batzuetan araua hausten da, batez ere zuzeneko galde perpause-tan*». Eta lehen baiño idazle gehixon –"arau-hauslik", hori bai– adibide-zerrenda luzio ematen dik (?!). Guk gurasutatik-eta jaso deune galderatan hi ziherkakue ibiltzie izen dek eta, hortaz aparte, aspaldittik itturri oneko Azkoittiko eta Euskal Herriko hiketan eta idatxixetan'e ez dittuk falta hi ziherkakuk eo alokutibuk galde-ratan. Hementxe adibide batzuk:

«Joan al'ditun oiek?» (Martin Itziar)

«Nolako martxie zion bierko?» (*Azkoittiko euskerie*)

«¿Cer don bada nescatillia nesquia baño onradago?»  
(Juan Antonio Mogel: Eibar, 1745 – Markina, 1804)

«Baiña i: garesti samarra ez al dek?» (*Lazkao Txiki*)

«Nungoa unan mutil ori?» (*Txirrita*)

«Noren billa diñagu indioillar ori?» (Pierre Lhande: Baiona, 1877 – Atharratze, 1957)

«Zer adin dik zuen aitak?» (Daniel Landart: Donoztiri, 1946)

«Nor duk Beltza?» (Mariano Izeta: Elizondo, 1915-2001)

«Gezurra al-unan, ba, guzia?» (Nemesio Etxaniz)

«Espuru gañetik zer ageri din?» (Nikolas Ormaetxea, *Orix*: Oresa, 1888 – Añorga, 1961)

«Piroteknia duk hori ere?» (Iñigo Aranbarri: Azkoitia, 1963)

Lekukotasun hoiek danak eta gehixo eukitte eta jakinde, gaiñea, azkoittiar gaztin hikeko jardunin oso txertaute daola ziherkakuk ibiltzie galderatan (*Jungo al gaittuk?* eta antzekuk), ez huke izengo oso jokabide argixe kontrako jarrerie hartzie. Nehikue lan badiau, gaiñea, mendeko esaldixetatik sekule ibilli ez ditteun aditz ziherkakuk eo alokutibuk baztarten.



# ADITZ-TAULATAKO IRIZPIDIK

## Hike-informatzaillik

Aditz-taula hauek Azkoittiko hamahiru hike-hiztun eta informatzailliei esker ondu ditxiñau; hoixek emandako Azkoittiko kaleko, gehixen bat, hike-adizki ibillixenak jaso ditxiñau hemen. Hortaz gain, azkoittiar hizkuntzalai haundixe izen zan Pedro Irizarrek 1940-1950 urte ingurun argitarauteko aditz laguntzaillien taulak'e argibide bat baiño gehixo eman ziunebe.

## Aditz-forma bat baiño gehixo

Kasu batzuten, aditz-forma baten aldaera bat baiño gehixo ibiltzen dittuk Azkoittixen (*natxion/nitxion; gatxabiltzek/gatxebiltzek/gatxibiltzek...*). Holakutan, informatzaillie gehixenak ibiltzen deben adizki hari eman zoau lehentasune, eta, bi aldaerak igualtsu ibiltzen dienin, bixek jarri.





## ZEIN (NOR)

### Oraiñaldixe

(naiz/naiz) **naun / nauk<sup>1</sup>**

(zara/zea) **haiz**

(da/da) **den / dek**

(gara/gea) **gaittun / gaittuk**

[dira/die, di(e)z] **dittun / dittuk**

<sup>1</sup>URDIÑEZ: batu neutrua

BELTZEZ: azkoittiar neutrua

LODIZ: hike azkoittiarrez (noka+toka)

### Lehenaldixe

(nintzen/nitzen) **nitxiñan / nitxian**

(zinen/ziñen) **hitzenan / hitzean**

(zen/zan) **hunan / huan**

(ginen/giñen) **gitxiñan / gitxian**

[ziren/zi(e)n] **hittunan / hittuan**

LENGUN IZERRAITZEA  
JUN NITXIÑAN  
GURASUKIN.

NI ENAUN  
OINDIK SEKULE  
JUN.

BIXOK JUNGO  
GAITTUN  
HURRENGUN!



## ZEIN-ZEĨNI (NOR-NORI)

### Oraiñaldixe

(zait/zat) **ziten / zitek**

(zaizu/zatzu) **zan / zak**

(zaio/zako) **zikon / zikok**

(zaigu/zaku) **zikun / zikuk**

[zaie/zako(b)e] **zikoben, zikon(a-e)be<sup>1</sup> / zikobek, ziko(a)be**

[zaizkit/za(i)txit] **zizten / ziztek**

(zaizkizu/zaitzu) **zatxiñ / zatxik**

(zaizkio/zaizko) **zizkon / zizkok**

(zaizkigu/zaizku) **zizkun / zizkuk**

[zaizkie/zaizko(b)e] **zizkobek, zizkon(a-e)be / zizkobe(k), zizkoabe**

<sup>1</sup>*zikonabe, zikonebe; bixek ibillixek*

GUSTATZE ALTZAN GAUR  
IN DENEN  
PATATA-TORTILLIE?

MUNDIALA  
ZIOK! HIK SEGI  
HOLAXE!



### Lehenaldixe

(zitzaidan/ziten) **zitenan / zitean**

(zitzaizun/zitzun) **zikenan / zikean**

(zitzaion/zikon) **zikonan / zikoan**

(zitzaigun/zikun, zitzekun) **zikunan / zikuan**

[zitzaien/zikoben] **ziko(na)benan / ziko(a)bean**

(zitzaizkidan/zizten) **ziztenan / ziztean**

(zitzaizkion/zizkon) **zizkonan / zizkoan**

(zitzaizkigun/zizkun) **zizkunan / zizkuan**

## ZEIN-ZEIÑEK (NOR-NORK)

### Oraiñaldixe

#### NI

(nauzu/nazu) **naun / nauk**

(nau/nau) **natxiñ / natxik**

[naute/na(u)be] **natxiñ(a-e)be /  
natxi(a-e)be**

#### ZU > HI

(zaitut/zaitutt) **haut**

(zaitu/zaittu) **hau**

(zaitugu/zaitteu) **ha(g)u**

[zaituzte/zattu(b)e] **haune / hau(b)e,  
habe**

#### HAURE

(dut/det) **diñat / diat**

(duzu/dezu) **den / dek**

(du/du) **diñ / dik**

(dugu/deu) **diñau / diau**

(dute/debe) **diñ(a-e)be / di(a-e)be**

#### GU

(gaituzu/gaittuzu) **gaittun / gaittuk**

(gaitu/gaittu) **gatxiñ / gatxik**

(gaituzte/gaittue) **gatxiñebe / gatxibe**

#### HAIXEK

(ditut/dittut) **ditxiñat / ditxiat**

(dituzu/dittuzu) **dittun / dittuk**

(ditu/dittu) **ditxiñ / ditxik**

(ditugu/ditteu) **ditxiñ(a-e)u / ditxiu**

[dituzte/dittu(b)e] **ditxiñ(a-e)be /  
ditxi(a-e)be**

GAUR GOIZIN  
IKUSI HAUT, TA HIK  
KASOIK EZ!

NIK EZ HAUT PA  
IKUSI!

LO JUNGO  
HITZENAN DA!



## Lehenaldixe

### NI

(ninduzun/nittuzun) **nittunan / nittuan**  
 (ninduen/nittuen) **nitxiñan / nitxian**  
 [ninduten/nittu(b)en] **nitxiñaben / nitxiaben**

### ZU > HI

(zintudan/ziñuzen) **hittunan / hittuan**  
 (zintuen/ziñuzen) **hittunan / hittuan**  
 (zintugun/ziñuzeun) **hittuunan / hittuun**  
 [zintuzten/ziñuze(be)n] **hittunaben / hittuaben**

### HAURE

(nuen/nun) **niñan / nian**  
 (zenuen/zenun) **hunan / huan**  
 (zuen/zun) **ziñan / zian**  
 [genuen/gen(d)un] **giñenan / giñean**  
 (zuten/zeben) **ziñ(a-e)benan / ziabe(a)n**

### GU

(gintuzun/giñuzun, giñittuzun)  
**giñittunan / giñittuan**  
 (gintuen/giñuzen) **gi(ñi)txiñan / gi(ñi)txian**  
 (gintuzten/giñuzeben) **gitxiñabenan / gitxiabean**

### HAIXEK

(nituen/nittun) **nitxiñan / nitxian**  
 (zenituen/ziñuzen) **hittunan / hittuan**  
 (zituen/zittun) **zitxiñan / zitxian**  
 (genituen/giñuzen, genittun) **gitxiñan / gitxian**  
 [zituzten/zittu(b)en] **zitxiñaben(an) / zitxi(a)bean**

# ZEIN-ZEĨNI-ZEĨNEK (NOR-NORI-NORK)

## Orainaldixe

### NIK

(dizut/dizut) **diñat / diat**  
 (diot/dixot) **zonat / zoat**  
 (diet/dixobet) **zonabet, zobenat /  
 zoabet, zobeat**  
 (dizkizut/ditzut) **ditxiñat / ditxiat**  
 (dizkiot/dizkot) **zizkonat / zizkoat**  
 (dizkiet/dizkobet) **zizkonabet,  
 zizkobenat / zizkobeat**

### ZUK > HIK

(didazu/dizu) **di(e)n / di(e)k**  
 (diozu/dixozu) **dixon / dixok**  
 (diguzu / diuzu) **diun / diuk**  
 [diezu/dixo(b)ezu] **dixoben / dixobek**  
 (dizkidazu/dizkitzu) **ditzen / diztek**  
 (dizkiozu/dizkotzu) **dizkon / dizkok**  
 (dizkiguzu/dizkutzu) **dizkun / dizkuk**  
 (dizkiezu/dizkobetzu) **dizkoben /  
 dizkobek**

### HAREK

(dit/dit) **zi(e)n / zi(e)k**  
 (dizu/dizu) **diñ / dik**  
 (dio/dixo) **zion / ziok**  
 (digu/diu) **ziun / ziuk**  
 (die/dixo(b)e) **zonabe, zone / zoabe**  
 (dizkit/ditxit) **zizten / ziztek**  
 (dizkizu/ditzu) **ditxiñ / ditxik**  
 (dizkio/dizko) **zizkon / zizkok**  
 (dizkigu/dizku) **zizkun / zizkuk**  
 (dizkie/dizko(b)e) **zizkoben / zizkobek**

### GUK

[dizugu/dizu(g)u] **diñau / diau**  
 (diogu/dixou) **zonau / zoau**  
 [diegu/dix(o-e)u] **zo(be)nau / zo(be)au**  
 (dizkizugu/ditzugu) **ditxiñau / ditxiau**  
 (dizkiogu/dizkou) **zizkonau / zizkoau**  
 (dizkiegu/dizkobeu) **zizkobenau, zizkonau /  
 zizkobeau, zizkoau**

## HAIXEK

(didate/dibe) **zin(a-e)be / zi(a-e)be**

[dizute/dizu(b)e] **diñ(a-e)be / di(a)be**

(diote/dixobe) **zonabe / zoabe**

[digute/diu(b)e] **ziun(a-e)be / ziu(a-e)be**

(diete/dixobe) **z(i)onabe / z(i)oabe**

(dizkirate/diztebe) **ziztenabe / zizteabe**

(dizkizute/ditzube) **ditxiñabe / ditxiabe**

(dizkiote/dizkobe) **zizkonabe / zizkoabe**

(dizkigute/dizkube) **zizkunabe / zizkuabe**

(dizkiete/dizkobe) **zizkonabe / zizkoabe**

ESAN AL DIÑABE HIKEKO  
BERTSOPAPER-  
LEHIAKETIE DAOLA?



BAI! INGO HONTAN  
SARIXE EMANGO  
ZIUABE!





# ZEIN-ZEĨNI-ZEĨNEK (NOR-NORI-NORK)

## Lehenaldixe

### NIK

(nizun/nizun) **niñan / nian**  
 (nien/nixoben) **nitxobenan / nitxobean**  
 (diet/nixoben) **nitxobenan / nitxobean**  
 (nizkizun/nitzun) **nitxiñan / nitxian**  
 (nizkion/nizkon) **nitxizkonan / nitxizkoan**  
 (nizkien/nizkobean) **nitxizko(beat)nan / nitxizko(beat)an**

### ZUK > HIK

(zenidan/zizun) **hinan / hian**  
 (zenion/ziñon) **hixonan / hixoan**  
 [zenigun/zi(g)uzun] **hi(g)unan / hi(g)uan**  
 [zenien/ziño(b)en] **hixobenan / hixobean**  
 (zenizkidan/zizkitzun) **hi(z-x)tenan / hi(z-x)tean**  
 (zenizkion/zizkotzun) **hizkonan / hizkoan**  
 (zenizkigun/zizkutzun) **hizkunan / hizkuan**  
 (zenizkien/zizkiñozun) **hizko(beat)nan / hizko(beat)an**

### HAREK

[zidan/zi(e)n] **zi(e)nan / zian**  
 (zizun/zizun) **ziñ(a-e)n / zian**  
 (zion/zixon) **zonan, zixonan / zonan, zixoan**  
 [zigun/zi(g)un] **zi(g)unan / zi(g)uan**  
 (zien/zixoben) **zixobenan / zixobean**  
 (zizkidan/zizten) **ziztenan / ziztean**  
 (zizkizun/ziztun) **zizxiñ(a-e)n / zizxian**  
 (zizkion/zizkon) **zizkonan / zizkoan**  
 (zizkigun/zizkun) **zizkunan / zizkuan**  
 (zizkien/zizkon) **zizkonan / zizkoan**

### GUK

(genizun/genizun) **giñenan, geniñan / giñean, genian**  
 (genion/giñon) **gitxonan / gitxoan**  
 (genien/genixoben) **gitxobenan / gitxobean**  
 (genizkizun/giñitzun) **giñitxiñ(a-e)n / giñitxian**  
 (genizkion/giñizkon) **gitxizkonan / gitxizkoan**  
 (genizkien/giñizkobean) **gitxizkona(beat)n / gitxizkoa(beat)n**

## HAIXEK

[zidaten/zi(e)ben] **zibenan / zibean**

(zizuten/zizuben) **ziñabenan / ziabe(a)n**

(zioten/zixoben) **zobenan / zobeana**

[ziguten/zi(g)uben] **zi(g)ubenan / zi(g)ubeana**

(zieten/zixoben) **z(i)onabenan / z(i)oabeana**

(zizkidaten/zizteben) **ziztebenan / ziztebeana**

(zizkizuten/zizzuben) **zitxiñabenan /  
zitxi(a)beana**

(zizkioten/zizkobena) **zizkobenan / zizkobeana**

(zizkiguten/zizkiubena) **zizkubenan / zizkubean**

(zizkieten/zizkobena) **zizkobenan / zizkobeana**

ESAN NITXONAN,  
AZKENIN.

ZE ESAN HIXONAN,  
BA?

«HIK NEREKIN JAI-JAI!»



NOA HIJUE?

EON HAI PIXKET, NEU'RE  
BANITXIÑ DA!

LOKALEA NITXIÑ.



## JUN

### Orainaldixe

(noa/nue, nijue) **nitxiñ / nitxik**  
 [zoaz/zu(e)z] **hue, hijue**  
 [doa/diju(e)] **zijun, zin / zijuk, zik**  
 [goaz/gu(e)z] **gitxi(zt)ñ / gitxi(zt)k**  
 [doaz/diju(e)z, dijuzte] **zijuzten, zizten /**  
**zijuztek, ziztek**

### Lehenaldixe

[nindoan/niju(e)n] **nitxijunan / nitxijuan**  
 [zindoazen/ziñu(t)zen] **hijunan / hijuan**  
 (zihoan/zijun) **zijunan / zijuan**  
 (gindoazen/giñuzen) **gitxijunan /**  
**gitxijuan**  
 (zihoazen/zijuzten) **zijuztenan, ziztenan /**  
**zijuztean, ziztean**

## ETORRI

## Oraiñaldixe

(nator/nator) **n(i-a)txitorren /  
n(i-a)txitorrek**

(zatoz/zatoz) **hator**

(dator/dator) **z(i-a)torren / z(i-a)torrek**

(gatoz/gatoz) **gatx(i-a)tozten /  
g(i-a)txitoztek**

[datoz/datoz(te)] **z(i-a)tozten /  
z(i-a)toztek**

## Lehenaldixe

[nentorren/n(a-e)torren] **n(i-a)txitorrenan /  
n(i-a)txitorrean**

(zentozen/zatozen) **hatorrenan /  
hatorrean**

[zetorren/z(a-i)torren] **z(i-a)torrenan /  
z(i-a)torrean**

(gentozen/gatozen) **g(i-a)txitoztenan /  
g(i-a)txitoztean**

[zetozen/z(i-a)tozten] **z(i-a)toztenan /  
z(i-a)toztean**

JAIXEN BA AL HATOR  
BAZKAITTEA?

ZE, TXEPETXAN MUNEK  
TORTILLEN!

ETA ZER DAO  
BAZKALTZEKO?



**IBILLI****Oraiñaldixe**

(nabil/nabil) **natx(a-i)billen** /

**natx(a-i)billek**

(zabiltza/zabiltze) **habil**

(dabil/dabil) **zabillen** / **zabillek**

(gabiltza/gabiltze) **gatx(a-i)biltzen**, **ga-**

**bitxillen** / **gatx(a-i)biltzek**, **gabixillek**

(dabiltza/dabiltze) **zabiltzen** / **zabiltzek**

**Lehenaldixe**

[nenbilen/n(a-e)billen] **natx(a-i)billenan** /  
**natx(a-i)billean**

[zenbiltzan/z(a-e)biltzen] **habillenan** /  
**habillean**

[zebilen/z(a-e)billen] **z(a-e)billenan** /  
**z(a-e)billean**

[genbiltzan/g(a-e)biltzen] **gatxabiltzenan**,  
**gabixillenan** / **gatxabiltzean**, **gabixillean**

[zebiltzan/z(a-e)biltzen] **z(a-e)biltzenan** /  
**z(a-e)biltzean**



HI BA AL HABIL PELOTAN?

EZ, GAUR ENATXIBILLEN,  
ESKUE MINDUTE  
ZAUKENAT ETA.



## EON

## Oraiñaldixe

(nago/nao) **n(a-i)txion / n(a-i)txiok**

(zaude/zaude) **hao**

(dago/dao) **zion / ziok**

(gaude/gaude) **gatxauden / gatxaudek**

(daude/daude) **zauden / zaudek**

## Lehenaldixe

[nengoen/n(a-e)uen] **natxauenan,  
natxaonan / natxauean, natxaonan**

(zeuden/zeuden) **haonan / haoan**

(zegoen/z(a-e)uen) **zaonan, zauenan /  
zaoan, zauean**

[geunden/g(a-e)uden] **g(a-i)txaudenan /  
g(a-i)txaudean**

[zeuden/z(a-e)uden] **z(a-e)udenan /  
z(a-e)udean**



## EUKI

## Oraiñaldixe


(daukat/dauket) **z(a-e)ukenat / z(a-e)ukeat**(daukazu/daukezu) **dauken / daukek**(dauka/dauke) **zauken / zaukek**(daukagu/daukeu) **zaukenau /  
zaukeau**(daukate/daukebe) **zauken(a-e)be /  
zauke(a)be**(dauzkat/dauzket) **zauzkenat / zauzkeat**(dauzkazu/dauzketzu) **dauzken /  
dauzkek**(dauzka/dauzke) **zauzken / zauzkek**(dauzkagu/dauzkeu) **zauzkenau /  
zauzkeau**(dauzkate/dauzkebe) **zauzkenabe /  
zauzke(a)be**

## Lehenaldixe

(neukan/neuken) **natxa(u)kenan /  
natxa(u)kean**(zeneukan/zeukezun, zenduken)  
**haukenan / haukean**(zeukan/zeuken) **z(a-e)ukenan /  
z(a-e)ukean**[geneukan/gen(e)uken] **gatxaukenan /  
gatxaukean**(zeukaten/zaukeben) **zauke(na)benan /  
zauke(a)bean**[neuzkan/n(a-e)uzken] **na(txa)uzkenan /  
na(txa)uzkean**(zeneuzkan/zeneuzken) **hauzkenan /  
hauzkean**(zeuzkan/zeuzken) **z(a-e)uzkenan /  
z(a-e)uzkean**(geneuzkan/genuzken) **gatxauzkenan /  
gatxauzkean**(zeuzkaten/zauzkeben) **zauzkebenan /  
zauzkebean**

BA AL DAUKEK GAUR  
ERTETZEKO ASMOIK?

ETZAKIAT PAI  
ASTEARTIN AZTERKETIE  
ZAUKEAT.





**JAKIN****Oraĩaldixe**

(dakit/dakit) **z(a-e)kiñat / z(a-e)kiat**

(dakizu/dakizu) **dakiñ / dakik**

(daki/daki) **z(a-e)kiñ / z(a-e)kik**

(dakigu/dakiu) **z(a-e)kiñau / z(a-e)kiau**

(dakite/dakibe) **z(a-e)kiñabe /  
zaki(a)be**

(dakizkit/dakitxit) **zakitxiñ(a-e)t /  
zakitxiat**

(dakizkizu/dakitzu) **dakitxiñ / dakitxik**

(dakizki/dakitxi) **z(a-e)kitxiñ /  
z(a-e)kitxik**

[dakizkigu/dakitxi(g)u]  
**z(a-e)kitxiñ(a-e)u / z(a-e)kitxiau**

(dakizkite/dakitxibe) **zakitxiñabe /  
zakiatxiabe**

**Lehenaldixe**

[nekien/n(a-e)kixen] **natxakiñan, na-  
kixenan / natxakian, nakixean**

(zenekien/zeñekizun, zekizun) **hakiñan /  
hakian**

[zekien/z(a-e)kixen] **z(a-e)kixenan, zakiñan /  
z(a-e)kixean, zakian**

(genekien/genekiun) **gatkakiñan,  
genekixenan / gatkakian, genekixean**

[zekiten/zaki(xe)ben] **z(a-e)kixebenan /  
z(a-e)kixebean**

[nekizkien/n(a-e)kitxiñ] **natxazkiñan,  
nekitxiñan / natxazkian, nekitxian**

(zenekizkien/zekitzun) **hakitxiñan /  
hakitxian**

[zekizkien/z(a-e)kitxiñ] **z(a-e)kitxiñan /  
z(a-e)kitxian**

(genekizkien/geñezkiun) **getxezkiñan /  
getxezkian**

(zekizkiten/zekitxiben) **z(a-e)kitxibenan /  
z(a-e)kitxibean**

HIK BA AL DAKIK APLIKAZIXO  
HAU JAISTEN?

ETZAKIAT ASKO, BAIÑE  
SAXAUKO NAUK.



## EKARRI

## Oraiñaldixe

## ZEIN-ZEĨNEK (NOR-NORK)

(dakart/dakarret) **z(a-e)karrenat** /  
**z(a-e)karreat**

(dakarzu/dakartzu) **dakarren** / **dakarrek**

(dakar/dakar) **z(a-e)karren** / **z(a-e)karrek**

(dakargu/dakarreu) **z(a-e)karrenau** /  
**z(a-e)karreau**

(dakarte/dakarrebe) **z(a-e)karrenabe** /  
**z(a-e)karreabe**

(dakartzat/dakartzet) **zakartzenat** /  
**zakartzeat**

## Lehenaldixe

## ZEIN-ZEĨNEK (NOR-NORK)

(nekarren/nakarren) **nakarrenan** /  
**nakarrean**

(zenekarren/zenekartzun) **hekarrenan** /  
**hekarrean**

[zekarren/z(a-e)karren] **z(a-e)karrenan** /  
**z(a-e)karrean**

(genekarren/genekarren) **genekarrenan** /  
**genekarrean**

(zekarten/zekarreben) **zakarrebengan**, **zakarrebengan** / **zakarrebengan**, **zakarrebengan**

(nekartzan/nakartzten) **n(a-e)txazkarrenan**, **nakartzengan** / **n(a-e)txazkarrean**, **nakartzengan**

## EAMAN

## Oraiñaldixe

## ZEIN-ZEĨNEK (NOR-NORK)

(daramat/damarret, damakit) **zamarrenat,**  
**zamakiñ(a-e)t / zamarreat, zamakiat**

(daramazu/damarrezu, damartzu) **damarren,**  
**damakiñ / damarrek, damakik**

(darama/damar) **zamarren, zamakiñ /**  
**zamarrek, zamakik**

(daramagu/damarreu, damarkiu) **zamarrenau,**  
**zamakiñ(a-e)u / zamarreau, zamarkiau**

(daramate/damarrebe) **zamarrenabe,**  
**zamakiñebe / zamarreabe, zamarkiabe**

(daramatzat/damartzet, damazkit) **zamartzenat,**  
**zamazkiñ(a-e)t / zamartzeat, zamazkiñ(a-e)t**

## Lehenaldixe

## ZEIN-ZEĨNEK (NOR-NORK)

(neraman/namarren) **namarrenan, na-**  
**maki(xe)nan / namarrean, namaki-**  
**(xe)an**

(zeneraman/zenemazun) **hamarrenan,**  
**hamaki(xe)ñan / hamarrean, hamaki-**  
**(xe)an**

(zeraman/zamarren) **zamarrenan,**  
**zamaki(xe)nan / zamarrean, zama-**  
**ki(xe)an**

[generaman/g(a-e)namarren] **ganama-**  
**rrenan, gamakiñan / ganamarrean,**  
**gamakian**

(zemataten/zamarreben) **zamarrebe-**  
**nan, zamaki(xe)benan / zamarre-**  
**bean, zamaki(xe)bean**

[neramatzan/nemartzan, namazki-

(xe)n] **namartzenan, namazki(xe)-**  
**nan / namartzean, namarki(xe)an**

“AMA, NAHI DEZUNIAN  
JOKAIZU LOTERIXE...”



HOIXEK ZAMARREABE  
UMORIE!

ANDRAMAIXETAKO  
MOTORRAK BEROTZEN  
AIKOITUN.



## EABILLI-IBILLI

## Oraiñaldixe

## ZEIN-ZEĨNEK (NOR-NORK)

(darabilt/dabilkit) **zabilkiñat / zabilkiat**

(darabilzu/dabilkizu) **dabilkiñ / dabilkik**

(darabil/dabilki) **zabilkiñ / zabilkik**

(darabilgu/dabilkiu) **zabilkiñ(a-e)u /  
zabilkiu**

(darabilte/dabilkibe) **zabilkiñ(a-e)be /  
zabilkiabe**

(darabiltzat/dabilzkit) **zabilzkiñ(a-e)t /  
zabilzkiat**

## Lehenaldixe

## ZEIN-ZEĨNEK (NOR-NORK)

[nerabilen/nabilki(xe)n] **nabilki(xe)nan /  
nabilki(xe)an**

(zenerabilen/z(a-e)bilkizun) **habilki-  
ñ(a-e)n / habilkian**

(zerabilen/zabilkiñ) **zabilkixenan, za-  
bilkiñan / zabilki(xe)an**

(generabilen/gabilkixen) **gabilki(xe)nan /  
gabilkixean**

(zerabilten/zabilkixeben) **zabilki(xe)benan /  
zabilki(xe)bean**

(nerabiltzan/nabilzkiñ) **nabilzkiñan /  
nabilzkiian**

## BESTE ADITZ BATZUK

### BALDINTZE-ONDORIXUK

#### ZEIN (NOR)

**Baldintzie** (Alegiazkue)

[bazina/baziñe(ke)] **bahitz(en)ake** /  
**bahitz(e)ke**

**Ondorixue**

(nintzateke/nitzeke) **nitxikiñ** / **nitxikik**  
(zinateke/ziñeke) **hitzenake** / **hitzeke**  
(litzateke/litzeke) **hun(a-e)ke** / **huke**  
(ginateke/giñeke) **gitxi(z)kiñ** /  
**gitxi(z)kik**  
(lirateke/lieke) **hittuzkene, hittunake** /  
**hittuzke, hittuake**

#### ZEIN-ZEĨÑEK (NOR-NORK)

**Baldintzie** (Alegiazkue)

[bazenu/bazenu(ke)] **bahun(a-e)ke** /  
**bahu(ke)**

**Ondorixue**

(nuke/nuke) **nikiñ** / **nikik**  
(zenuke/zenuke) **hunake** / **huke**  
(luke/luke) **likiñ** / **likik**  
(genuke/genuke) **giñikiñ** / **giñikik**  
[lukete/l(e-u)kebe] **likiñ(a-e)be** / **liki(a-e)be**

#### ZEIN-ZEĨÑI-ZEĨÑEK (NOR-NORI-NORK)

**Baldintzie** (Alegiazkue)

[bazenio/baziño(ke)] **bahixon(a-e)ke** /  
**bahixoke**

**Ondorixue**

(nioke/nixoke) **nitxoken** / **nitxokek**  
(zenioke/ziñoke) **hixonake** / **hixoke**  
(lioke/lixoke) **litxoken** / **litxokek**  
(genioke/giñoke) **g(en)itxoken** /  
**g(en)itxokek**  
(nizkioko/nizkoke) **nitxozken** /  
**nitxozkek**

## AHALERIE

(ZEIN) + (ZEIN-ZEIÑEK) (NOR) + (NOR-NORK)

### Oraiñaldixe

(naiteke + dezaket/leiket) **letxekenat,**  
**leikenat / letxekeat, leikeat**  
 (zaitezke + dezakezu/leikezu) **leiken /**  
**leikek**

(daiteke + dezake/leike) **letxeken,**  
**leike(i)n / letxekek, leike(i)k**  
 (gaitetzke + dezakegu/leikeu) **letxekenau,**  
**leikeñau / letxekeau, leikeau**  
 (daitezke + dezakete/leikebe) **leiken(a-e)be /**  
**leikeabe**

### Lehenaldixe

[nintekeen + nezakeen/nei(n)ken, leikenun] **n(e-a)txakenan, leikeniñan / n(e-a)-**  
**txakean, leikenian**  
 (zintezkeen + zenezakeen/zeikezun, zeneiken) **heikenan, leikeunan / heikean, leikeuan**  
 (zitekeen + zezakeen/zeiken) **zeikenan,**  
**zetzakenan / zeikean, zetzakean**  
 (gintezkeen + genezakeen/geneiken) **ge-**  
**netxakenan, geneikenan / genetxakean,**  
**geneikean**  
 (zitezkeen + zezaketen/zeikeben) **zeikebenan / zeikebean**

DIRUE EUKIKO BAHU,  
NOA JUNGO HITZENAKE?

NIK MUNDU OSUEI  
BUELTIE EMANGO  
NITXOKEN.





Ahalerazko aditz jokau hoizez aparte, badittun Azkoittixen ahalerie azaltzeko beste era batzuk'e. Hauetxek:

**EZIN.** Asko ibiltzen den ezintasun erreala, batiz bat, azaltzeko: *Ezin diñat jun / Ezin diat loik eiñ...* Eta "ezin" + "aditz jokau"re bai: *Ezin leiket hori onartu, iñundik'e!*

**NOMINALIZAZIXUE.** Aditze izen bihurtute den beste era bat; esate bateako:

Galderie: *Gaur etortzeik ba al dek?*

Baiezku: *Bai, bazaueat etortzie.*

Ezezku: *Ez, etzaueat etortzeik.*

Batzun iritzixen, ez dittun oso forma egokixek; halare, ibiltzen dinez, merezi diñ forma hoixek aukeran izetie, kontun izenda, gaiñea, beti ez dala erreza izeten ahalerazko aditz-formie min-gaiñ-punthen izetie.

ORDUN, HEMEZORTZI  
URTEKIN NAHI DEUNE EIÑ  
LEIKENAU?

BAI, HIII!  
AHAL DEUNE TA GUSTOA,  
TXIKITO!



## AGINDUERIE

### ZEIN (NOR)

(zaitez/hadi) **hai**

### ZEIN-ZEĨÑEK (NOR-NORK)

(ezazu/zazu) **zan / zak**

[itzazu/it(ze)zu] **itzan / itzak**

### ZEIN-ZEĨÑI-ZEĨÑEK (NOR-NORI-NORK)

(iezadazu/izu) **ien / iek**

(iezaguzu/iguzu) **i(g)un / i(g)uk**

(iezaiozu/ixozu) **ixon / ixok**

(iezaiezu/ixezu) **ixoben, ixen / ixobek,  
ixek**

[iezazkidazu/i(zte)tzu, izkitzu] **izten / iztek**

(iezazkiozu/izkotzu) **izkon / izkok**

### EMAN (Agindueran)

### ZEIN-ZEĨÑEK (NOR-NORK)

(emazu/emaizu, emazazu) **emaizan /  
emaizak**

(emaitzazu/emaitzezu, emaitzu) **emaitzan /  
emaitzak**

### ZEIN-ZEĨÑI-ZEĨÑEK (NOR-NORI-NORK)

(emadazu/emaizu) **emaien / emaiiek**

(emaiozu/emaiozu) **emaixon / emaiioxk**

(emaiezu/emaioxobezu, emaiozu) **emaioxo-  
ben / emaiioxek**

(emazkidazu/emaitzezu) **emaizten / emaiiztek**

(emazkiozu/emaizkotzu) **emaizkon / emaiizkok**

(emazkiezu/emaizkotzu) **emaizkobek /  
emaizkobek**

TRAPU BAT JARRIXON  
AZPIXEN, EZ HOTEKO!

GEO EMAIXON  
ESNE EPEL PIXKET!

BAI, BAIÑE ZUK  
HELDUIXOZU  
TXAKURREI!



## OLERKI BAT

### IRRISTAN

Biok giñoazela  
besotik bidean,  
begiak urdiñean,  
sagar ustel batean  
irrits egin niñan.  
Ta nerekin ankaz gora  
zalapartan,  
laster intzanan lurrean.

Ustegabeko  
laztan aretan,  
izarrak nastu  
zitzaizkigunan  
oiñetan.

(Nemesio Etxaniz)



# AURKIBIDIE

## SARRERIE

«Hike eizan!» egitasmue .....	3
«Azkoittiko HIKE POLTSIKUN» eskuliburue .....	4
Azkoittixen, HIKE eta ZUKE .....	5
Mutillek hike, eta neskak? .....	6
Garai berrixek ote hike-tratamentuntzat? .....	7

## HIKE: LAGUNARTEKO TRATAMENTUE

Hiru hizketa-tratamentu Azkoittixen .....	8
Zer ematen dik hike-tratamentuk? .....	8

## HIKE IBILTZEKO OHITUREK

Zeiñekin bai eta zeñekin ez? .....	9
------------------------------------	---

## HIKE-TRATAMENTUN EZAUGARRIXEK

Hl izenordaiñe .....	11
ZUEK pertsonie, aditz neutrukin beti .....	11
Genero-markie: NOKA eta TOKA .....	11
Noiz noka, noiz toka? .....	12
Generun kontue, biren arteko tratue .....	13
ZUZENEGO adizkixek eta ZIHERKAKO adizkixek .....	13
Mendeko esaldixetan ZIHERKAKOIK EZ .....	15
Mendeko esaldixetan ZUZENEKUK BAI .....	16
Aditz trakets berrixek: <i>natxoala, diñahunin, ziokelako</i> .....	17
«zik», aditz komodiñe? .....	18
BALDINTZE-esaldixek .....	19
HARRIDUREZKO esaldixek .....	21

GALDERAZKO esaldixek.....	23
---------------------------	----

## ADITZ-TAULATAKO IRIZPIDIK

Hike-informatzaillik.....	25
Aditz-forma bat baiño gehixo .....	25
Ahoskerie .....	26

### Aditz laguntzaillik

ZEIN (NOR) .....	27
ZEIN-ZEINI (NOR-NORI) .....	28
ZEIN-ZEINEK (NOR-NORK) .....	29
ZEIN-ZEINI-ZEINEK (NOR-NORI-NORK) .....	31

### Aditz trinkuk

JUN .....	35
ETORRI.....	36
IBILLI .....	37
EON .....	38
EUKI .....	39
JAKIN .....	41
EKARRI.....	43
EAMAN .....	44
EABILI-IBILLI .....	46

### Beste aditz batzuk

BALDINTZE-ONDORIXUK .....	47
AHALERIE.....	48
AGINDUERIE.....	50

Olerki bat: <i>Irristan</i> .....	51
-----------------------------------	----

Testue: Xabier Eizagirre Landa  
Diseñue eta maketazixue: Azkoittiko FK  
Egillie: Hike eizan! lantaldie eta Azkoittiko Udala  
2023ko maiatza

«Azkoittiko  
HIKE POLTSIKUN»,  
HI!



HIKE  
POLTSIKUN?!  
HOBE BURUN!



TA IBILLI  
MUNDUN!



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro



AZKOITIA  
Udala